

BESTEREN PREMIA DAUDEN ADINEKO PERTSONEN

ESKUBIDEEN AGIRIA



Beren eskubideak gureak ere badira

Printzipioak

- ▶ Besteren premian egotea ez da pertsonaren izaera mugatzearekin parekatu behar
- ▶ Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea gizartearen erantzukizuna da
- ▶ Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea herritar guztien eskubideak babesten diren bermea da

Oinarrizko eskubideak

- ▶ Duintasun eskubidea
- ▶ Burujabetasun eskubidea
- ▶ Parte hartzeko eskubidea
- ▶ Eskubideen ezagutzarako eta defentsarako eskubidea

Gizarte eta ekonomia eskubideak

- ▶ Osasuna babesteko eskubidea
- ▶ Gizarte zerbitzuetarako eskubidea
- ▶ Diru sarrera bermatua izateko eskubidea
- ▶ Bizilekua izateko eskubidea
- ▶ Ingurumen egokia gozatzeko eskubidea

BESTEREN PREMIA DAUDEN ADINEKO PERTSONEN ESKUBIDEEN AGIRIA



Beren eskubideak gureak ere badira



Aurkezpena

Adineko pertsonen bizi kalitatearen hobekuntza da, zalantzarik gabe, Foru Aldundien kezka nagusietako bat. Horrekin batera, aspaldiko urteotan, erakunde hauen interbentzio eremu garrantzitsuenetakoa ere izan da, batik bat, gizarte zerbitzuen esparruan. Interes nabari horrek bultzatu gaitu adineko pertsoneri eskaini beharreko arretaren oinarriak finkatzera, beste norbaiten premian aurkitzen direnei zor zaiena, bereziki, arreta horren funtsezko ardatz gisa aipatutako pertsonen eskubideekiko errespetua ezarritz.


3

Agiri honen xedea besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak eta askatasunak aitortu, errespetatu eta bultzatu beharraren kontzientzia piztea izan da, bai biztanlerian, oro har, eta bai Administrazioetan. Foru Aldundientzat, indarrean dauden herri politikak finkatzeko eta neurri egokienekin aberasteko konpromiso sendoa hartzea da, eskubide aitortza esplizitu honek besteren premian dauden adineko pertsonen eguneroko bizitzan benetako eragina izan dezan bermatzeko.

Herritarren eta erakundeen arteko ahalegin hau lagungarri izatea espero dugu xede hauek erdiesteko beharrezkoa den jarrera aldaketa eragiteko.



Enrique Aguirrezábal Otálora
Arabako Gizarte Ongizaterako
Foru Diputatua



Ricardo Ansotegui Aranguren
Bizkaiko Foru Aldundiko
Gizartekintza Saileko Diputatua



Máximo Goikoetxea Ferreiro
Gizartekintzako Foru Diputatua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitzaurrea

Agiri honek besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak aldarrikatzen ditu, adineko populazioari dagozkion beste adierazpen batzuen filosofia bere eginez. Aldarrikapen horietako batzuek nazioarteko zabalkundea dute: Nazio Batuek ateratako *Adineko Pertsonen Printzipioak*, Zahartzaroko Nazioarteko Federazioak aldarrikatutako *Adineko Pertsonen Eskubide eta Erantzukizun Adierazpena*, Adineko Herritarren Nazioarteko Elkartearen *Adineko Herritarren Eskubideen Aldarrikapena* edota Adineko Pertsonen Ongizaterako Europar Elkarateak –EURAG– argitaratutako *Europako Adineko Pertsonen Eskubideen Agiria*; beste batzuk oso finkatuak daude Europako hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan edo Belgikan indarrean dauden Adineko Pertsonen Eskubide Agiriak, esate baterako.

5

Adierazpen honen berezitasuna besteren premian dauden adineko pertsonen behar berezietan zentratu izanean datza. Horretan, azken urteotan protagonismo berezia hartu duen joera berri bati jarraitu dio. Adibiderik aipagarriena Frantziako Gerontologiako Fundazio Nazionalak sustatu eta Enplegu eta

Solidaritate Ministerioak babestutako *Besteren premian dauden Adineko Pertsonen Eskubide eta Askatasunen Agiria* da, zeina izaera bertsuko beste dokumentu batzuen zuzeneko aurrekaria baita, nola diren *Besteren premian dauden Adineko Pertsonen Eskubideen Agiria*, Luxenburgoko Gerontologia Elkarteak landua, edota *Besteren premian dauden Adineko Pertsonen Eskubide eta Askatasunen Agiri Irekia*, Bartzelonako Udalak bultzatua, Adineko Pertsonen Kontseiluarekin elkarlanean.

Testua printzipio eta eskubide jakin batzuen inguruan egituratzen da:

► **Printzipioek** testuaren espiritua zehazten dute hiru ildo nagusi ezarriz:

- Besteren premian egotea ez da pertsonaren izaera mugatzearekin parekatu behar.
- Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea gizartearen erantzukizuna da.
- Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea herritar guztien eskubideak babesten diren bermea da.


► **Eskubideak** bi multzotan sailkatzen dira:

- Alde batetik, oinarrizko eskubideak daude, funtsezkoak, pertsona izateari lotuak eta, horregatixe, eskubide pertsonalak izenaren pean bildu direnak. Duintasuna, burujabetasuna, parte hartzea eta eskubideen ezagutza eta defentsa dira. Eskubide horien izaeraren kariaz bizitzako arlo guztietan aplikatu eta errespetatu behar dira, –familiako harremanetan, zerbitzuetako profesionalen eta erabiltzaileen arteko erlazioetan, Administrazioaren eta administratuen artekoetan–, eta beroriek errespetatzea nahitaezko baldintza da gainerako askatasunak gauzatuko badira.
- Bigarren multzoa gizarte eta ekonomia politikako printzipio gidarien aplikaziotik eratorritako eskubideek osatzen dute. Osasunaren babeserako eskubidea, gizarte zerbitzuetarako eskubidea, diru sarrera bermatua izatekoa, bizileku duina izatekoa eta ingurumen egokia gozatzeko eskubidea dira.

Agiriaren eduki zehatzak besteren mendekotzak eragindako beharretan kokatzearen, testuak ez ditu jasotzen esandako eskubideen eduki orokorrak, baizik eta besteren premian dauden pertsoneri bereziki eragiten dien alderdietan sakontzen saiatzen da. Ikuspuntu horretatik esan daiteke aipatu diren izaera orokorragoko beste testu horien osagarria dela Agiri hau.

Printzipioak

- **Besteren premian egotea ez da pertsonaren izaera mugatzearekin parekatu behar**
- **Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea gizartearen erantzukizuna da**
- **Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea herritar guztien eskubideak babesten diren bermea da**




Besteren premian dagoela ez da pertsonaren izaera mugatzearekin parekatu behar

Pertsona bat besteren premian dagoela esaten da beste baten edo gehiagoren laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera jakin batzuk aurrera eramateko, bere bizitzan zuzeneko eragina duten erabakiak hartzeko, edo bietarako. Teoriaren eta printzipioen eremuan, pertsona gehienak bat datozen arren besteren premian dauden adineko pertsonak gainerako herritarren maila bereko subjektu eskubidedunak direla, eguneroko egintzetan, askotan, pertsona horien osasun edo ezaguera galera beren eskubideak gutxitzearekin identifikatzeko joera nagusitzen da eta horregatik onartzen da naturaltasunez pertsona horiek beren eskubideak ez erabiltzea edota erabili ahal izateko baldintzarik ez izatea. Pertsona horietako askok, eguneroko errealitatearen aurrean, beren eskubideei –baita eskubide oinarrizkoenei ere– uko egitearekin lotzen dute beren mendekotza.

11

Eta horren aurka postura irmoa hartu beharra dago. Pertsona batek bere eskubideei uko egitea onartzeak edo, era inplizituan ukarazteak esan nahi du ez dela bere pertsona izaera aitortzen eta ezerk, ezein arrazoik ezin dezake eskubide urratze hori justifikatu. Nahitaezkoa da beti kontuan izatea, subjektu eskubidedun izatea ez dagoela eskubide horien edukia ezagutzeko adimen gaitasunaren edo burujabetasunez eskubideak erabiltzeko gaitasun fisikoaren mende. Pertsona izate hutsak egiten du bat eskubidedun.



Besteren premian dauden adineko pertsonen eskubideak babestea gizartearen erantzukizuna da


Besteren premian dauden adineko pertsonak subjektu eskubidedunak direla berariaz aitortu izanak eskubide horiek erabiltzea ahalbidetuko duten neurriak bideratzeko ardura inposatzen dio gizarteari; bestela, gizarte honen oinarritzko zutabe baten kontra joango litzateke, pertsonen berdintasun printzipioaren eta bereizkuntzarik ezaren aurka, alegia. Erantzukizun handia da hori, eta bai gaiaren neurriagatik eta bai izaeragatik gizarte osoak bere gain hartu beharrekoa. Alde batetik, instituzioek, zalantzarik gabe, berorien lana baita xedea erdiesteko beharrezkoak diren politikak diseinatzea eta bitartekoak artikulatzea, baina baita gainerako gizarte eragileek ere, hala publikoek nola pribatuek, eta herritar guztiek, oro har.

Erantzukizun hori onartzeak, praktikan, jarrera aldaketa garrantzizkoak eskatzen ditu:

- ▮ Lehenik, esan nahi du gizarteak onartu beharra dauzkala bere kideen arteko desberdintasunak eta berorietara egokitu beharra daukala, zenbait pertsona edo talde baztertu ordez edo beren errealitatea kontuan hartu gabe diseinatutako eredu estandar batzuetara egokitzera behartu ordez.



- ▶ Ikuspegi horretatik, nahitaezkoa izango da besteren premian dauden adineko pertsonetikiko harreman ereduetan aldaketa garrantzizkoak gauzatzea. Zalantzarik gabe, aldaketak pixkanaka sartu beharko dira, eredu berriak, eskubideen errespetuan oinarritzen direnak, lehen unean zailagoak gertatu bailitezke oraingoak baino: gogorragoa da pertsona bati oraindik duen burujabetza fisikoari eusten laguntzea gauzak haren ordeztu egitea baino; korapilatsuagoa da pertsona batek bizitzan zehar erakutsi dituen nahiak aintzat hartzen saiatzea, pertsona horri dagokion erabaki bat hartzeko orduan, norberaren irizpide hutsekin hartzea baino. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, argi geratuko da jarrera berri hori, zuzenagoa ez ezik, esker hobekoa eta asegarriagoa gertatuko dela praktikan jartzen dutenentzat.



***Besteren premian dauden
adineko pertsonen eskubideak
babestea herritar guztien
eskubideak babesten diren
bermea da***

Eskubideen nozioa eta beroriek aldezteko eta bultzatzeko premia –ez teoriarik bakarrik, baizik eta eguneroko praktikan, batez ere– behin eta berriz azpimarratzen baldin bada, arrazoi bategatik da: eskubideak eta askatasunak onartzeak, konbentzimendu sakon batean oinarrituta dagoenean, sustraitik aldatzen duelako jarrerari, erlazioei eta arretari buruz dugun ikuspegia. Izatez, besteren premian dauden adineko pertsonen arreta eta sorospenean behar bezain ongi funtzionatzen ez duten alderdiak aurkitu nahi direnean –bere etxean bizi direla edota egoitzaren batean daudenean– eta zergatiak aztertzen baldin badira, egiaztatzen da disfuntzio aipagarrienak, azken batean, pertsona horien eskubideak ez onartu izatetik eratoritzen direla. Oraindik ere, besteren premian dauden adinekoei nornahik bere buruarentzat ezin pentsatuzkoak edo onartezinak iritziko lituzkeen bizitza ereduak ezartzen zaizkie: inork ez lituzke onartuko ezagueran galerak dituzten adineko pertsonak, kexatzeko aukerarik gabe, sufritzen dituzten bezalako intromisioak beren intimitatean; eta ez lituzke ametituko, orobat, beren bizi moldea hautatzeko askatasunean behin eta berriz ezartzen zaizkien murrizketak.

Horrelako egoerak bakanagoak izango lirateke baldin mundu guztiak pertsonaren eskubide eta askatasunak kontuan hartuta arrazoituko balu, arreta guztia jarduera batzuk edo besteak egiteko behar duten laguntza mailan jarri ordez. Baitezpadakoa da jarrera aldaketa horretara heltzea, eta horretarako, zalantzarik gabe, lagungarri izango da ohartzea, besteren premian dauden adineko pertsonen –eta egoera zaurgarrian aurkitzen diren beste ororen– eskubideak errespetatzea, babestea eta aldeztearen direla berme hoberenak guztion eskubideak errespetatuak, babestuak eta aldeztuak izan daitezen.

Oinarrizko eskubideak

- **Duintasun eskubidea**
- **Burujabetasun eskubidea**
- **Parte hartzeko eskubidea**
- **Eskubideen ezagutzarako eta defentsarako eskubidea**



Duintasun eskubidea

Pertsona orok du eskubidea bere berezko balioa aitortua izan dadin, edozein dela ere bere egoera, eta bere adina, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, adimen gaitasuna edo fisikoa, estatus sozio-ekonomikoa edo beste edozein baldintza sozial edo pertsonal kontuan hartu gabe.

Besteren premian dauden adineko pertsonen kasuan, eskubide hori errespetatzeak ondorengo funtsezko ereduok betetzea eskatzen du :

- ▶ Adinekoen intimitatea errespetatzea.
- ▶ Haurren moduan ez tratatzea.
- ▶ Hitzeko harremanetan errespetu handienaz tratatzea, betiere, adineko pertsonarengana zuzentzen saiatuz, sistematikoki laguntzailearekin mintzatu ordez, eta bera aurrean dagoenean, hirugarren pertsonan aipatzea saihestuz, baita ezaguera galerak dituzten pertsonen kasuan ere.
- ▶ Eguneroko jarduerak egiteko behar duten laguntza fisikoa ematea, ahal den guztian beren ohiturak eta zaletasunak errespetatuz.
- ▶ Beren beldurrak ulertzen saiatzea eta gainditzen laguntzea, behar duten laguntza psikologikoa eskainiz eta beren burujabetza fisikoari eusten saiatuz.

- ▶ Adinekoaren bizi erritmoa errespetatzea, bai bere arrazoiketan, bai mugitzen denean, edota eguneroko jardueren antolakuntzan, pazientzia galtze erreakzioak eta aurreikusi gabeko ohiko bizimoduaren aldaketak saihestuz.
- ▶ Adinekoen sinesmen eta iritzi intimoak errespetatzea bizitzako funtsezko alderdi guztietan eta arreta berezia eskaintzea duintasunez hiltzeko eskubideari.





Burujabetasun eskubidea

Burujabetasun eskubidea norberaren bizi moldea aukeratzeko askatasuna izatea da. Besteren premian dauden adineko pertsonen kasuan, eskubide hori errespetatzeak ondorengo funtsezko ereduok betetzea eskatzen du:

- ▶ Ahal den guztian, eguneroko bizitzan adierazten dituzten nahiak eta zaletasunak errespetatzea, bai beren itxura pertsonalari dagozkion gaietan (janzteko era edo orraztekoa) eta bai beren bizi ereduari dagozkionetan: orduak, irteerak, elikadura, jarduerak, etab.
- ▶ Eduki nahi dituzten harreman pertsonalak errespetatzea, harreman intimoak barne direla, harreman horiek biek onartuak direnean.
- ▶ Hala nahi dutenean, bakarrik egoteko eskubidea errespetatzea, beren espazio pertsonala errespetatzen dela bermatuz.
- ▶ Adinekoen mugitzeko askatasuna errespetatzea eta, neurri batean, baita kalkulaturako arrisku maila bat beren gain hartzeko eskubidea ere.
- ▶ Beren ondare eta diru sarrerak nahi duten bezala erabiltzeko eskubidea errespetatzea.

Askatasun hauek epaileak emandako ezgaitasun ebazpen baten bitartez bakarrik muga daitezke, eskubideen ezagutzarako eta defentsarako eskubidean jasorik dauden baldintzetan.



Parte hartzeko eskubidea

Parte hartzeko eskubideak esan nahi du, zuzenean ala zeharka, herri politiken formulazioan eta aplikazioan parte hartzeko aukera izan behar duela, eskubide zibil eta politikoak –biltzekoa, elkartzekoa eta botoa ematekoa, bereziki– erabiltzearen bitartez.

Besteren premian dauden adineko pertsonen kasuan, eskubide hori errespetatzeak ondorengo funtsezko ereduok betetzea eskatzen du:

- ▶ Beharrezkoak diren neurriak hartzea, ahal den guztian, botoa emateko eskubidea bermatzeko, besteren premian dagoen adineko pertsonari argi azalduz edo gogoraraziz zein den prozedura eta, behar balitz, hauteslekuraino lagunduz, botoa eman ahal izan dezan, baina laguntza horrek, inola ere, ez du oztopatu edo aldarazi behar adinekoaren aukera politikoa. Komeni da kontuan izatea besteren premian dauden pertsonen, manipulazio politikoaren mende eror ez daitezen, kanpaina-ekitaldietara joatea oztopatzea edo, azken finean, botoa ematea eragozteak ez dela parte hartzeko eskubidea errespetatzea.
- ▶ Besteren premia handia duten pertsonen parte hartzea bultzatzea adineko pertsonen eskubideak aldeztu dituzten foro eta elkarteetan, talde horietan ez egoteagatik egoera horretan daudenen interes eta premia bereziak kontuan hartuak ez izatea ekiditeko.

Eskubideen ezagutzarako eta defentsarako eskubidea

Eskubideen erabilpenak eskubide horiek aldeztu aurretik ezagutzea eskatzen du eta, indarrean dagoen legedian, eskubide horien defentsarako aurreikusita dauden bideak eskura izatea.

Besteren premian dauden adineko pertsonen kasuan, garrantzikoa da eskubide horren oinarritzko bi alderditan arreta jartzea:

- ▶ Lehenik, guztiz beharrezkoa da argi edukitzea ezgaitasun juridikoaren xedea, beste ezer baino lehen, ezgaitua babestea dela.

Besteren premian dagoen adineko pertsona baten eskubideak, beste edonorenak bezalaxe, eskubide horien erabilpenak ohikoa baino arrisku maila objektibo handiagoa suposa dezakeen –eskubideduna jabetzen ez dela– kasuetan bakarrik muga daitezke. Muga horrek eragin garrantzizkoak ditu pertsonaren bizitzan eta, horregatik, zuhurtasun eta berme handienekin tratatu beharreko gaia da, batez ere, interes edo eskubide gatazkak baldin badaude besteren premian dagoen pertsonaren eta bere ingurune hurbilenaren artean. Ezgaitasun prozedura da berme horiek eskaini ditzakeen modu bakarra: berorretan, Epaileak erabakitzen du, pertsonaren egoera dela-eta, benetan gaitasunik duen ala ez bere buruari

dagozkion erabakiak hartzeko, eta balizko ezgaitasun horrek bere bizitzako alor eta egintza guztiak hartzen dituen, ala egintza mota jakin batzuetara mugatzen den. Azken kasu honetan, pertsonak bere gaitasuna eta askatasuna mantenduko luke, ezgaitasunik adierazi ez dioten alorretako egintzak era burujabea gauzatzeko.

Komeni da eranstea adineko pertsona batek ezgaitasun epaia jaso duen kasuetan ere, zuzenean dagozkion erabakiak hartzerakoan, ahal den guztian, berarekin kontsultatzea dela egokiena, bere nahiak zein diren jakiteko eta, betiere, gertatuko zaionaren berri izan dezan.

- ▶ Kontuan hartu beharreko bigarren alderdia, aurrekoarekin zuzeneko zerikusia duena, beste hau da: aldez aurretik, burujabetza gaitasuna galdu eta ezgaitasun epai bat jasoko lukeen kasurako, etorkizunean bere ordezkari izatea nahi duen pertsona izendatzeko aukera izatea. Aukera hori, zuzenbidearen munduan autotutoretza esaten zaiona, ez dago aurreikusita gure Autonomia Erkidegoko legedian. Hala ere, praktikan, notaria bidez aplikatzen hasita dago. Halaxe da, pertsona batek bere zahartzarorako aurreikuspenak egin nahi baditu, eta argi baldin badauka bera ordezkatzeko eta, behar balitz, bere tutoretzaz arduratzeko pertsonarik egokiena nor den, jaso dezake borondate hori notariako eskritura publiko batean. Normala den bezala, prozedura horrek baimentzen du kontrako kasua ere, hau da, idatziz jasota uztea ez dutela nahi pertsona jakin batzuk

–bereziki, beren ahaidetasuna dela-eta tutore izendatuak izan litezkeenak– bere tutore izatea. Kasu hauetan, beren zentzu ona erakutsiz, Epailleek, horretara behartuak ez dauden arren, pertsonak erabakiak hartzeko gaitasun osoa zuenean adierazitako borondatea errespetatzeko joera izan ohi dute.



25

Aipatu diren bi alderdiak funtsezkoak dira adineko pertsonen eskubideak behar bezala aldeztuak izan daitezzen eta Administrazio publikoek neurri egokienak hartu behar lituzkete bai adinekoei eta bai beren familiakoei eskubide horien edukiaren berri emateko.

Gizarte eta ekonomia eskubideak

- **Osasuna babesteko eskubidea**
- **Gizarte zerbitzuetarako eskubidea**
- **Diru sarrera bermatua izateko eskubidea**
- **Bizilekua izateko eskubidea**
- **Ingurumen egokia gozatzeko eskubidea**



Osasuna babesteko eskubidea

Osasuna babesteko eskubideak kasu bakoitzean egokienak gertatzen diren prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta birgaitze zerbitzuak erdietsi ahal izatea eskatzen du.

Besteren premian dauden adineko pertsonen kasuan, garrantzizkoa da eskubide horren oinarritzko bi alderditan arreta jartzea:

- ▶ Alde batetik, pertsona hauen osasunaren babesa oso estu loturik dago beren bizi baldintzekin eta beren gizarte ingurunean laguntza izatearekin. Horrela, osasuna babesteko eskubidea benetakoa eta eraginkorra izango bada, nahitaezkoa da pertsona horien premiak osoko ikuspegi batez begiestea, era horretan, premia horietara hobekien doitzen diren arreta moduak zehazteko.

Ikuspuntu horretatik, gizarte zerbitzuez eta osasun gaiez arduratzen diren Administrazioek ahalegin berezia egin behar dute gizarte-osasun espazioaren artikulazio egoki baterako beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta arreta gabeko egoerak ekidindo dituen zerbitzu iraunkor bat abian jartzeko.

- Osasuna babesteko gai honetan nabarmendu beharreko bigarren alderdia alde zuzeneko jarraibideen dokumentua egiteko eskubidea da. Dokumentu hori, *“bizi testamentua”* edo *“aldez aurretiko borondateen dokumentua”* ere deitzen zaiona, medikuari edo mediku talde arduradunari zuzendutako idatzi bat da. Bertan, aski gaitasun duen pertsona adinez heldu batek, askatasun osoz, jaso nahi lukeen osasun arretari buruzko jarraibideak adierazten ditu, bere borondatea pertsonalki adieraztea ezinezkoa zaion egoeraren bat sortzen denerako. Dokumentu horretan pertsonak ordezkari bat izenda dezake, eta ordezkari hori izango litzateke medikuarekin edo mediku taldearekin hitz egingo lukeen solaskide baliozkoa eta beharrezkoa alde zuzeneko jarraibideak bete ahal izan daitezela.

Funtsezkoa da besteren premian dauden adineko pertsonen eskubide honen berri izatea eta eskuduntza duten Administrazioek aipatutako eskubidearen edukia eta berori erabiltzeko baldintzak zabaldu behar litzateke, bai kanpaina orokorren bitartez eta bai adineko pertsonetara zuzenean bideratutako informazio pertsonalizatua eskainiz, mota horretako erabakiren bat hartzea bereziki gomendagarria egiten duten prozesu hondatzaileen aurrerapena ikusten denean.

Gizarte zerbitzuetarako eskubidea

Besteren premian dauden adineko pertsonak beren beharretara hobekien egokitzen diren gizarte zerbitzuak erabiltzeko eskubidea dute.

Gai honi dagokionez, beharrezkoa da ondorengo funtsezko alderdi hauek betetzea:

▶ Besteren premian dauden adineko pertsonak eskubidea dute beren ohiko bizilekuan jarraitzeko aukera eskain diezaieten. Eskubide hori modu eraginkorrean erabiltzeak ondorengo baldintza hauek eskatzen ditu:

- Besteren mendekotza dezentea duten pertsonak beren ohiko bizilekuan jarraitzeko adinako laguntza emateko gauza izango diren etxeko laguntzarako zerbitzuak izatea.
- Besteren premian dauden pertsona askok izan ohi dituzten bakardade eta segurtasun falta arazoei erantzuteko laguntza programak izatea, mota horretako ekimenetarako boluntarioak kontuan hartuz.
- Egun-argitako zentro sare bat izatea, hurbileko baliabide gisa, besteren mendekotza handia duten pertsonak arreta intentsiboa eskaintzearen.

- ▶ Norberaren etxean jarraitzea ezinezkoa denean, besteren premian dauden adineko pertsonak beren premietara egokitutako egoitza batean sorotsiak izateko aukera izan behar dute eta, egoitza horrek, bere bizi moldearekin jarraitzea ahalbidetu behar dio adinekoari. Eskubide horren eraginkortasuna bermatzeak ondorengo hau esan nahi du:
 - Erkidegoan txertatutako tamaina txikiko egoitza alternatiboak bultzatzen jarraitzea: pisu tutelatuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitza txikiak.
 - Egoitza zerbitzu sarearen estaldura tasa pixkanaka handitzen jarraitzea, premietan antzemandako igoerari erantzuteko.
 - Egoitza aukeratzeko orduan, adineko pertsona era aktiboan inplikatzeko, eta argi eta garbi azaltzea, eskubidea duela proba-denboraldi bat egiteko.
 - Egoitzako bizitza bertan bizi diren pertsonen eskubideak kontuan harturik eta, ahal den guztian, beren lehentasun eta aukera pertsonalak errespetatuz antolatzea.

Diru sarrera bermatua izateko eskubidea

Diru sarrera bermatua izateko eskubidea duintasunez bizitzeko adinako diru sarrerak izateko eskubidea da.

Azken urteotan egindako ahaleginarekin jarraitu beharra baldin badago ere, esan behar da, ahalegin horri esker, besteren premian dauden pertsona adinekoen egoera modu nabarian hobetu dela, zenbateko baxuko pentsioen osagarri gisa, oinarritzko errentara eta gutxieneko diru sarrera bermatzeko foru prestaziora heltzeko aukera eman baitzaie. Prestazio horiek elkartuz, bakarrik bizi zen adineko pertsonak lanbide arteko gutxieneko soldataren pareko diru sarrera jasotzea ziurtatzen da.

33



Bizilekua izateko eskubidea

Bizilekua izateko eskubideak duintasunez bizitzeko moduko baldintzak dituen etxe batean bizi ahal izatea esan nahi du.

Eskubide hori errespetatzeak berarekin dakar:

- ▶ Besteren premian dauden adineko pertsonen etxebizitzek oinarrizko erosotasun baldintzak (elektrizitatea, berogailua, ur beroa) badituztela bermatzea, eta halaber, instalazioen segurtasuna bermaturik izatea.
- ▶ Etxebizitzetako egokitze lanak bultzatzea eta erraztea, arkitektura oztopo guztiak kentzen direla bermatzeko: kanpokoak, aldapak eraikiz eta igogailuak jarriz, eta barrukoak, ohiko atearak gurpil-aulkiaren zabalera onartzen dutenekin ordeztuz, ibilbideetan eskulekuak edo barandak jarriz, eta komunak egokituz (barra euskarriak, irristada aurkako zoruak, bainuontzi egokituak, idulki gabeko konketak eta kanil monomandoak).



Ingurumen egokia gozatzeko eskubidea

Besteren premian dauden adineko pertsonen kasuan, ingurumen egokia gozatzeko eskubideak, beste ezer baino lehen, ingurune urbanizatua, eraikinak, garraioak eta komunikazioak erabili ahal izatea esan nahi du. Eskubide hau errespetatzea nahitaezko baldintza da Agiri honetan jasotako gainerako eskubideak gauzatu ahal izateko. Hori gabe, ez du zentzurik etxebizitza duinaz, osasuna babesteko eskubideaz edo gizarte zerbitzuak izatekoaz aritzeak.

Ezinbestekoa da, hortaz, gizartea, oro har, gai honetaz sentsibilizatzea eta dagozkion erantzukizunak onartzea, ondorengo portaera eredu hauekin konprometituz:

- ▶ Akzesibilitate gaietan indarrean dagoen araudia betetzea.
- ▶ Hirigintzan, arkitekturan eta ekipamendu, altzari, tresneria eta gauzakien diseinuak egiterakoan, *“diseinu unibertsalaren”* (*“guztientzako diseinu”* ere esaten zaio) filosofia aplikatzea. Ikuspegi horren arabera, gauza guztiek mundu guztiak erabiltzeko modukoak izan behar dute; beraz, gauza horiek diseinatzerakoan, premia desberdinak hartu behar dira aintzat. Kontua ez da ezintasunen bat duten pertsonentzat egokitzea, baizik eta gauzak,

hasieratik, modu iragankorrean edo iraunkorrean, bere mugitzeko ahalmena gutxiturik duen edozein pertsonaren premietara doitzen diren ezaugarriekin diseinatzea. Guztientzako akzesibilitatea bermatzea, guztion mesederako ondasuna da, zinez, eta ezinbesteko baldintza herritar guztien eskubideak, salbuespenik gabe, bermatu nahi dituen gizarte batean.

